

Santa Zezilia egunean, musika kalera

Urnietako Lourdes Iriondo Musika Udal Eskolako ikasleek kalejirarekin ospatu zuten musikarien eguna. Andoainen Gora Kaletxiki Bandak saio ederra eskaini zuen /

2-3

Greba Feminista Orokorra

Azaroaren 25a Greba Feminista Orokorren atarikoak bilakatu zen, Andoainen / 8-9

Ehunka ikusle batu ziren, Amaia Agirre gogoan hartzeko, Zanpatuz elkarteak deituta / 11

Euskararen egunean kantu kalejira Urnietan, eta ekitaldi berezia Andoaingo Basteron / 14



ate
irekiak

HH/LH

HH/LHKO ERAIKINA
ABENDUAREN 16AN 11:00ETAN

DBH

BATXILERGO/DBHKO ERAIKINA
ABENDUAREN 16AN 11:00ETAN

Hitzordua beharrezkoa web orrian:
www.urnietakosalesiarrak.com



salestarrak
MAGALE · URNIETA



Gora Kaletxiki Banda gonbidatuekin eta Asier Barrio Agirreren sendiarekin, emanaldiaren ostean ateratako argazkian. AIURRI

Gora Kaletxiki Bandaren emanaldi berezia

Gora Kaletxiki Bandak Santa Zezilia eguneko kontzertu berezia eskaini zuen Santa Krutz elizan, larunbat arratsean, eta bertan, uztailean zendu zen Asier Barrio Agirre Basteroko langileari aitortza egin zioten, herriko elkarteen ordezkariekin batera

Xabier Lasa ANDOAIN

“Gauza handiekin ez, baizik eta gertuko gauza txikiekin, bere inguruko bizitza errazten eta atseginagoa egiten saiatu zen herrikide baten oroimenez” prestatu zuten kontzertuaren azken zatia Gora Kaletxiki Bandako musikariek, eta emozioz beteriko uneak bizitu zituzten Santa Krutz elizara larunbat arratsean hurbildu ziren musi-

kazaleek. Asier Barrioren senitartekoak bertan izan ziren, eta Andoaingo hainbat kultur elkarteekin eta eragileen babesarekin jaso zuten. Hain zuzen, kontzertua amaitu ostean denak argazkirako bildu zirenean eduki zuten aukera familiarri erakusteko zenbat estimatzen zuten Asier.

Bestalde, Joxe Mari Oiartzabalek azken aldiaren konposatu

dituen hainbat abesti interpretatu zituen Bandak, kontzertuan. Aita Larramendi Ikastolaren Ereserkiaren ekin zioten ema-

KONTZERTUAN OMENALDI SENTITUA JASO ZUEN ASIER BARRIOREN SENITARTEKOAK



Xabier Ibaguren eta Aingeru Zabala bakarlarri lanetan aritu ziren *Pie Jesu* piezian. AIURRI

naldiari, eta ikastetxeko ikasleekin danbor hotsek lagunduta gainera.

Andoaingo kantutegi zaharrean aski ezaguna den *Otso Beltza* jotzeko orduan, berriz, Lebiton konpartsako buruhandiak izan zituzten bidelagun Bandak.

Aurten San Roke jaietan estreinatu duten *Buruntza* abestiak ere tokia hartu zuen larunbateko kontzertuan. *En mi viejo San Juan*, *Pie Jesu*, *Iñaki Cia Olaskoaga*, *El Cumbanchero* eta *Santa Zezilia* piezekin osatu zuten emanaldia.

www.aiurri.eus

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Emanaldi osoa ikusgai



Axier Barrio Agirre sendiak Gora Kaletxiki Bandaren omenaldia jaso zuen, larunbateko emanaldian. Hunkigarria izan zen. AIURRI



Aita Larramendi ikastolaren ereserkiarekin abiatu zen emanaldi berezia. Bertan izan ziren ikasleak, danborra jotzeko. AIURRI



Lebiton konpartsaren parte-hartzea ikusgarria izan zen. AIURRI



Kalera atera ziren musika-eskolako ikasleak zein irakasleak, ohiturak aginduta. AIURRI

Santa Zezilia eguneko ospakizuna, Urnietan

Herriko hiru plaza nagusiak gurutzatu zituzten Lourdes Iriondo musika-eskolako ikasleek zein irakasleek

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Musikariaren eguna izateagatik da eguna da azaroaren 22a, Santa Zezilia. Hori horrela, kalera atera ziren Lourdes Iriondo musika-eskolako ikasleak zein irakasleak, urteroko ohiturak aginduta, nor bere musika-instrumentua eskuan, herriari itzulua emateko.

Arratsaldeko 17:30ean abiatu ziren kultur etxetik, eta, San Juan plaza igaro ostean, kalez kale aritu ziren, Plazido Muxikan edo Etxeberrri plazan geldialdia eginda. Trikitixa, panderoa, klarineta, melodika... Makina bat doinuz bete zuten Urnieta, asteazken arratsaldean, musikagile gazteek.



Makina bat doinuz bete zuten Urnieta, asteazken arratsaldean, musikagile gazteek. AIURRI



Urnietako
udala

IN MEMORIAM

ANABEL FERNANDEZ GOROSABEL ANDOAINGO EMAGINA



Anabel Fernandez Gorosabel, 2017ko azaroan, erretiroa hartu berritan. AIURRI

Andoainen arrasto sakona utzi zuen emagina

Badira herritarren artean arrasto sakona uzten duten pertsonak. Horietako bat izan zen Anabel Fernandez Gorosabel emagina. Urte luzez aritu zen Andoaingo Osasun Etxean lanean. Azaroaren 22an zendu zen, eta albistea berehala zabaldu zen herrian

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Haurdunaldia, erditzea, edoskitzea, amatasuna... Itzal handiko kontzeptuak dira horiek guztiak, emakume askoren bizitzan berebiziko garrantzia hartzera irits daitezkeenak. Andoaingo hainbat belaunaldiren erreferentziatzko emagina izan zen Anabel Fernandez Gorosabel donostiarra. Pasioz bizi zuen

bere ogibidea, eta urteen poderioz emakume askoren gertuko pertsona bilakatu zen. Bertakoa sentitzen zen, ia-ia, Aiurriri 2017an aitortu zionez: "Nahiz donostiarra izan, andoaindarra banintz bezala sentitzen naiz. Herriko makina bat emakume ezagutzen dut, eta horiekin bizipen gozagarriak zein tristeak partekatu ditut urte hauetan.

Okindegirako bidean bakarrik, lauzpabost emakume ezagunekin geratzen naiz hizketan egunero". Erretiroa hartu berritan, eskertza-gutuna idatzi zien andoaindarrei: "Lortutako guztia hobetzen jarrai ezazue. Bizitza zoriontsua opa dizuet denoi, mundu hobeago batean. Mila esker eta besarkada bat". Eskermila zuri, Anabel.

Ibilbide oparoa Andoainen



Haurdun zegoen emakume taldea, 1997an. AIURRI

1997 Hemerrotekari erreparatuz, 1997ko apirilean "Esperoan egon" izeneko erreportajea argitaratu zen Aiurri hamaboskarian. Anabel Fernandezek, dagoeneko, prestakuntza teorikoa eta praktikoa eskaintzen zien haurdun zeuden Andoaingo emakumeei.



2014ko martxoko kalejira. AIURRI

2014 Martxoak 8 Emakume kalejiraren bitartez, herriko hainbat emakumeren lana aintzat hartzen zen. 2014ko omenduetakoa Anabel bera izan zen. Urte luzez emagin lanetan egindako lanaren aitortza jaso zuen, urte hartan.



2017ko azaroan lankideen omenaldia jaso zuen, lantokian. AIURRI

2017 Erretiroa hartu zuen, lankideen agur beroa jasoz. Zorretan sentitzen zen emagina andoaindarrekin, eta Aiurri agurra adierazteko baliatu zuen: "Urte asko izan dira pasioz hartu dudana lana egiten. Eta hori guztia hasieratik beso-zabalik hartu ninduen herri batean, Andoainen".



PATXI MUÑOZ



PATXI MUÑOZ

Andoaindarren kinto bazkariak Oianumen

1960an jaiotakoak dira ezkerreko argazkian ageri direnak. Hamalau lagun elkartu ziren eta giro ederrean eman zuten eguna. Dagoeneko hamahiru urte egin dituzte kinto bazkariak antolatzen. Bertako kide batek azaldutakoaren arabera, garai hartako festa giroa gogoan hartu zuten. Gazteleku, Tilos, Yausika, Young Play eta Gure Txokoaren garaiak ziren haiek. Goiko argazkian, berriz, 1961ean jaiotakoak ageri dira. Hogeita bat lagun elkartu ziren, denera, lagunarteko bazkaria egiteko.

POSTONTZIA

ITZIAR MUJIKA DOPA DONOSTIALDEA OSASUN PUBLIKOAREN ALDE ELKARTEKO KIDEA

Osakidetza

Donostialdeko ESI, Osakidetzako erakunde handiena da. Herri askok osatzen duten ESIa: Oiartzun, Lezo, Errenteria, Pasaia, Lasarte, Donostia, Urnieta, Astigarraga, Hernani, Usurbil, Aizarnazabal, Zestoa, Getaria, Zumaia, Zarautz, Orío eta Aia. Herri hauen herritarroi osasun-arreta ematen zaie.

Bada, dagoeneko entzun dugu, orain Gabonak direla eta, abenduaren 4tik aurrera antolaketa berria izango ditugula: ordutegia mugatuko digute, hau murrizketa da eta, maila guztietako langileak ez dira bermatzen zerbitzu guztietan; beste murrizketa bat. Horrek guztiak eragina du osasun-arretan, baita geure ongizatean ere.

Osakidetzako arduradunek osasun-langileak bilatzea zaila dela jakinarazi digute, bereziki zaila sendagileak lortzea.

Etengabe sendagilerik ez dagoela entzun dugu eta, hainbeste aldiz esanez guk hori sinistea nahi dute. Baina non daude sendagileak?

Desagertu egin dira? Nire galdera honako hau da: zergatik da gero eta zailagoa Osakidetzan lan egiteko langileak bilatzea? Zer gertatu da? Oraindik ez dut entzun enpresa-pribatuen horrelako gabezia dagoenik, aintzat hartuta gero eta enpresa gehiago daudela eta gero eta lan handiagoa dutela.

Badira 10 urte baino gehiago zer iritsiko zen konturatu ginela. Batetik, Osakidetzako langileen adinagatik erreleboa eta, bestetik, gizartearen aldaketa eta zahartzea. Zer egin dute? Zer plangintza egin dute? Goi-goiko geure Osakidetzako arduradunek zer egin dute?

Gainera arduradun politikoak ez dira aldatu. Iritsi gara iritsi garen egoerara hauen kudeaketarekin. Geure Osakidetzari utzi duten bezala eta haiek berak konpontzeko gai izango dira?

Ba bai, egoera kaskarra egin da eta, nola, gainera! Osakidetzari prestigioa kendu diote eta geure osasunaren bizkarretik

negozioa egiten da. Lotsagabekeria.

Sailburuak, Sagardui andereak, hori guztia konpontzeko erremedioa baduela esaten digu: publiko-pribatuen lankidetzak.

Ez nago ados, ez. Lankidetzak hori pribatizazioa da, geure dirua, diru publikoa, esku pribatuetan jartzea da eta, bide batez, geure Osakidetzak ahulagoa eta suntsitua geratzen da. Gero eta langile gutxiago Osasun Zentro guztietan, eta lan gehiago egiten. Lan-postu berriak enpresa pribatuetan, lan baldintzak eskasak eta lan egiten gehienok emakumeok.

Osasun arazoa izanda, nora joango gara? Ahal dutenek, agian, pribatura?

Nahikoa da! Osakidetzak indartu! Osasungintza geurea da. Ez ostu. Ez suntsitu.

P.d.: Andoain Tolosaldea ESI eremuan sartzen bada ere, Andoaingo Osasun Zentroko ordutegitik kanpo Hernanikoa da erreferentziatzeko gunea.



BATZOKIA

Mus-txapelketa, Batzokian

Joxe Mari Tolosa eta Claudio Mendikute gailendu ziren, Miren Erkiziaren eta Gurutz Irigorasen aurkako finalean. Hirugarren eta laugarren postuetan Erkizia aita-semeak eta Santa Cruz-Lete bikotea sailkatu dira, hurrenez hurren.



Inaxio Arratibel eta Luis Telesforo Cardoso gogoan

Lasarte-Orian, Mirentxu izeneko etxe dotorean, frankismoko biktimen aldeko eskultura jarri dute. Francoren aldekoek espetxea jarri zuten bertan, eta eskualdean egindako giza eskubideen urraketak salatu zituzten

Xabier Lasa ANDOAIN

Ekitaldian, Agustin Valdivia Lasarte-Oriako alkateak eta Joxe Agustin Muguruza Islada Ezkutatuak elkarteko kideak hartu zuten hitza, eta Joseba Tapiak bi abesti kantatu zituen. Andoaindik haraino hurbildu ziren Kontxi Arratibel eta Begoña Cardoso, 1936ko Gerran, Lasarte-Oriako kartzela hartan egondako ondorengoak. Eta baita Mailu Arruti hango herriko Islada Ezkutatuak elkarteko kidea. Hitza hartu zuen, gainera, elkartearen izenean: "Ez da zehatz mehatz jakingo zenbait izango diren basakeria hori sufritu zutenak. Eta are gutxiago haien nahigabeak, irainak edo

une garratzak zenbaterainokoak izan ziren. Frankismoa sarraski batetik sortu zen, eta Lasarte-Oriak berea sufritu zuen. Gizon-emakume eta neska mutilek, gosea, zapalkuntza, bortxaketak, hizkuntz jazarpena eta abar jasan behar izan zuten beren bizitza aurrera atera ahal izateko". Eskultura jartzeko orduan, zehaztu zuen zergatik hautatu dituzten Mirentxu etxea eta bere jardina. "Leku honetatik, *La Comandancia Militar de Lasarte* delakotik ateratzen ziren agindu guztiak, hala nola, jendea erailtzeko edo atxilotzeko. Horregatik aukeratu dugu lekua harria jartzeko, bertan gertatutakoa salatzeke eta sufritu zu-

tenenganako oroigarri bat izan dadin". Frankistek 1936ko irailaren 13an okupatu zuten Lasarte (Hernaniko auzoa zen orduan), eta berehala, etxe dotore hori konfiskatu, eta bertan komandantzia militarra ezarri zuten.

Kontxi Arratibelen familia, Arratibel Zuaznabar, Oria auzoko familia ezkertiarra izan zen Errepublikan, eta bere kideek kartzela, langile batailoietan zigorra eta lan bazterkeria jasan zuten horregatik. bazterkeria horren eraginez, hain zuzen, familiak Andoainera etorri behar izan zuen, Oria atzean utzita.

Begoña Cardosoren guraso Luis Telesforo Cardoso eta Ga-




Mailu Arruti, Kontxi Arratibel eta Begoña Cardoso, eskulturaren ondoan. AIURRI



Ekitaldiko bideoa ikusgai dago Aiurri.eus webgunean. AIURRI

bina Alonsori Zizurkilen bizi zirela harrapatu zien 1936ko kolpe militarrek. Ama frankis-

tek atxilotu eta Lasarte-Oriako kartzelan eduki zuten preso bolada batean.



Eska ezazu webgunean eta herriko liburutendetan





Esti Garmendia (Lasarte-Oria), Jon Martin (Batzar Nagusiak) eta Eukén Garmendia (Urnieta), EH Bilduko ordezkariak. AIURRI

Irtenbidea eman nahi diote Urnieta eta Lasarte-Oria arteko tunelari

Urnieta eta Lasarte-Oria lotzen ditu, Iruñean hasten eta Donostian bukatzen den Plazaolako bideak, "Trentxiki" gisa ere ezaguna denak. Hala, egun, itxita jarraitzen du Buruntzaldeako bi herrien arteko tunelak, "txanpiñoien haztegiak"

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun sailak Plazaolako bide berdearen azken zatia egikaritzeari uko egin diola salatu du EH Bilduk. Hori horrela, egoeraren nondik norakoak azaldu zituen alderdiak, Urnieta eta Lasarte-Oria lotzen dituen tunelaren atarian, astearte goizean deitutako prentsaurrekoan. Bertan izan ziren bi udalerrietako EH Bilduko ordezkariak, hau da, Urnietatik, Eukén Garmendia, eta Lasarte-Oriatik Esti Garmendia, bai eta Jon Martin ere, EH Bilduko Batzar Nagusietako kidea.

"Harriduraz eta kezkaz" hartu zuen hitza Martinek, 2024ko aurrekontuetan aipatutako egitasmoa gauzatzeko "partidarik ez dagoela" ikusita, alegia, haren hitzetan, "proiektua baztertzea erabaki" dela jabetuta. Behin alderdiaren jarrera argi agertuta, testuinguruan ipini zuen afera.

Martinek adierazi bezala, 2022ko apirilean, Next Generation Europako funtsetara beren hautagaitza aurkeztuko zuela iragarri zuen lurraldeko Foru Aldundiak, Plazaolako bide berdean, Urnieta eta Lasarte-Oriaren arteko lotura egin ahal izateko, Vasco-Navarro eta Urolako bide berdeekin batera. Hala, bezperako hilabeteetan, Buruntzaldea eskualdeko tokiko administrazioen onspena jaso zuen.

EH Bilduk egitasmoa garatzea aldarrikatu du

Jarraian, Batzar Nagusietako kideak dioenez, urte horren amaieran, Europar Batasuneko Next Generation izeneko funtsetatik 2.560.000 euro bideratuko zirela iragarri zuen Javier Hurtado Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailburuak, aurretik adierazitako hiru bide berdeetan inbertitzeko asmoz. Horrela, Eusko Jaurlaritzak hitzarmena sinatu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, 2.300.000 euroko partida hiru egitasmoetara bideratzeko xedez: "Gipuzkoako Foru Aldundiko 2023ko aurrekontuetan, Plazaolako proiektuan lanean hasteko 130.000 euroko partida onartu bazuen ere, ez da proiektu honetan inolako lanik egin eta, ondorioz, zentimorik exekutatu", azaldu zuen Martinek prentsaurrekoan.

Jasangarritasun sailaren jarrera salatu du EH Bildu alderdiak, Martinen arabera, datorren urteari begirako aurrekontuetan "EAJ eta PSE-EEK gobernatzen duten Foru Aldundiak" proiektua "desagerrarazi" egin duelako.

Hori dela eta, "Buruntzaldeako mugikortasuna, aisia, zein turismo baliabide gisa proiektuak duen berebiziko garrantzia jabetuta", Plazaolako bide berdearen proiektua "bururaino garatzeko" lan egingo duela aldarrikatu du EH Bilduk.

Ezagutu gaitzazu!

EGAPE IKASTOLA
urnietarron
ikastola publikoa

ESKURATU INFORMAZIOA

943009275 (HLH)
943899425 (DBH)

online formularioa

www.egape.eus

ASPILLA
ekoizpen ekologikoa

677 110 541 - aspilla.eko@gmail.com
f Aspilla Eko

Babeslea:
egunean behin?



Kale Nagusian behera abiatu eta Agustin Leitza kale aldera sartu zen manifestazioa, Nafarroa plazarantz abiatzeko. AIURRI

Azaroren 25a, Greba Feminista Orokorren atarian

Emakumeenganako Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira, Andoaingo Udalak bat egin zuen herriko asanblada feministak antolatu zuen manifestazioarekin. Dozenaka lagun elkartu zen Goikoplazan, larunbat eguerdian

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Azaroaren 25ko manifestazioa Greba Feminista Orokorren ateetan antolatu zuten, eta Andoaingo Asanblada Feministak grebaren mamari keinu egin zion manifestazioaren ibilbidea deskribatzeko garaian: "Zaintza lanak erdigunean jarri nahi ditugu, horregatik herriko zaintza gunetatik pasako gara udal txean amaitzeko". Isiltasunean abiatu zen, baina laster aldarrikapen oihuak entzuten hasi ziren. Hala, "Kaleak, gauak,

gureak dira", "Zaintza lanak denonak dira", "Hemen gaude, beldurrik gaude" edota "Gu gabe, ez dago zaintzarik" izan ziren manifestarien ahotan entzundako aldarrikapenak. Manifestazioa amaituta, Andoaingo Asanblada Feministako bi kidek adierazpena irakurri zuten. Indarkeria matxistaren aurka kalera ateratzeko beharra aldarrikatu zuten, hilketa matxisten aurrean "haserre, nazkaz eta inpotentziaz hilketak zenbatu eta erasoak salatzen jarraitzen dugun bitar-

tean". Azken urteotan, aldaketak eman badira ere, azalekoak dirrela salatu zuten: "Sistema kapitalista, heteropatriarkal, koloniala eta arrazistak bere horretan jarraitzen baitu". Sistema hori bera da, euren ustez, "indarkeria matxista ahalbidetzen duen egitura". Baliabide publikoak eta prebentzio politikak behar dituztela aldarrikatu zuten, besteak beste, haurren heziketan eraginez, balio feministetan hezi ahal izateko". Txalo artean amaitu zen hitzartzea.

Manifestazioa Andoaingo kaleetan



Nafarroa plaza zeharkatuta, Osasun Etxearen ondotik igaro zen manifestazioa.

Osasun Etxearen aurrealdea Goikoplazan hasi eta bertan amaitu zen manifestazioa. Amaiera aldera, manifestua irakurri zuten Andoaingo Asanblada Feministako bi kidek. Besteak beste, Osasun Etxetik igaro ziren.



Ke morea lau haizetara zabaldu zuten, eguneko zentrotik igarotzean.

Anbrosia Olabide eraikina Manifestazioari ekin aurretik, deitzaileek egin zuten iragarpena. Manifestazioaren ibilbidea zaintzari loturiko guneetatik igarotzekoa zen. Hala, Eguneko Zentrotik eta Gizarte Zerbizuen egoitzatik pasa ziren.



Greba Feministara deitzen zuen pankarta topatu zuten manifestariak.

Greba Feminista Orokorren aurretik Azaroaren 25eko aldarrikapen-eguna, aurten, Hego Euskal Herrian deituta dagoen Greba Feminista Orokorren atarian ospatu da. Manifestariak grebarekin bat egiteko pankarta topatu zute, Agustin Leitza kalean.

Indarkeria matxistaren aurka, herriko plazan

Urnietako Udalak deituta, indarkeria matxistaren aurkako elkarretaratzea egin zuten San Juan plazan. Ordezkaritza duten alderdietako kideekin batera, hainbat herrikide elkartu zen bertan

Erredakzioa URNIETA

Hainbat mobilizazio izan zen herrian barrena, Emakumearen Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunean. Egurdiko 12:00etan bildu zen Buruntzaldeako Itaia Zaldun-degi plazan: "Indarkeria matxistari aurre egiteko sozialismoa eraiki" lelopean.

Ordu berean, San Juan plazan ere elkarretaratzea egin zuten zenbait herritarrek, Urnietako Udalak deituta. Tartean zen Bagara herriko talde feminista. Udalak, bere aldeik, herriko alderdiek aho batez adostutako adierazpen instituzionala irakurri zuten.



Isiltasunean egon ziren, indarkeria matxistak eragindako biktimak gogoan. UDALA



Lagun ugari elkartu zen herriko plazan, azaroaren 25ean. UDALA

Udalerrri mailako konpromisoak

Indarkeria matxistari aurre egiteko prebentzioan sakondu nahi dute Eudeleko Udalek, "tokiko estrategia indartuz, adingabeen artean sexu-indarkeriari aurre egiteko egiturak, baliabideak, zerbitzuak edo programak ezarriz":

- Neskei eta nerabeei zuzendutako ahalduntze-programak indartzea, sexualitateari, bikote-harremanei, maitasun erromantikoari, autodefentsa feministako tailerrei eta abarrei buruzkoak
- Mutiko eta mutilei zuzendutako esku-hartzeak abian jartzea, afektibitatea, harreman-ereduak, maskulinitate-ereduak edo rol sexistak eta parekidetasuna gaitzetzeko estrategiak lantzeko.
- Indarkeria digitala prebenitzeko eta hari erantzuteko estrategiak lantzea, indarkeria matxista mota berri horiei ere aurre eginez.
- Udalerriko adingabeekin hezkuntza-prozesuak indartzea, tokiko ekimenen bidez.

Arnasetik lehiaketan 112 sormen lan osatu dituzte gazteek

BIDEOSORMEN LEHIAKETAREN BIGARREN EDIZIOAK SORMENA SUSTATU DU EUSKARAREN ARNASGUNEETAKO GAZTEEN ARTEAN.

Euskaraz sortuko duten sortzaileak behar ditu euskarak, eta hauen arrastoaren atzetik euskararen arnaguneei bisita egin die "Arnasetik" bideosormen lehiaketak. Arnasa Gara ekimenak antolatutako lehiaketa honen bigarren edizio honetan arnaguneetan bizi diren 10-16 urte bitarteko gazteek hartu dute parte, bai eta



arnaguneetako ikasleak jasotzen dituzten ikastetxeetako ikasleek ere. Irailean abiatutako "Arnasetik" sormen lehiaketak azaroaren 22an izan zuen amaiera gala, Zarautzeko Modelo Aretoan. Lehiaketaren bigarren edizioa oso arrakastatsua izan da; ia baino 13 lan gehiago jaso direlarik. Adinaren arabera hiru kategoria izan ditu lehiaketak, eta kategoria bakoitzean erronka bati erantzun behar izan diote, guztiak euskararekin eta arnaguneetako hizkuntza-ohiturei zein bizipenei lotuak. Nahia Sillero influentzerra izan zen

gidaria, eta Deñe musikariak hiru pieza eskaini zituen.

ARNASA GARA

Arnasa Gara ekimena euskararen arnaguneen garrantzia gizarteratzeko eta bertako herritarrek ahalduntzeko helburuarekin jaiotzen, UEMAK, Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak sustatuta. Aurten "Arnasetik" sormen lehiaketa izan du ardatz ekimenak, eta arnaguneetako gaztetxoek izan dituzte jomagan, haien hizkuntza ohituren

Idiazabal, Azkoitia, Ataun eta Doneztebeko gazteak izan dira irabazleak.

Jasotako 112 lanetan jarri da marka berria eta haien kalitatea azpimarratzekoa izan da.

10-16 urte bitarteko gaztetxoek parte hartu dute.

inguruan gogoeta egiteko eta haien sormena sustatzeko. Izan ere, euskaldun eduki sortzaile gisa ere funtsezkoak dira euskararen biziberritze prozesuan.

ETORKIZUNERA BEGIRA

Gaztetxoek edukien sorkuntzarako duten grinaren erakusle izan da "Arnasetik" bideosormen lehiaketaren bigarren edizioa. Hori dela eta, Arnasa Gara ekimenak arnaguneetako gazteei gogoeta piztu eta hizkuntza ohituretan eragiten jarraitzeko asmoa du.

Info gehiago: www.arnasagara.eus



JAVI MENTA

"Nire lehen maratoia"

ATLETISMOA Zumeatarra kirol elkarteko Javi Mentak sekulakoa egin zuen, aurreko igandean. Bere lehen maratoian seigarren postuan sailkatu zen, 02:23:58 orduko denbora eginez. 42.195 kilometroko distantzia 03m 24s / km-ko batez bestekoarekin osatu zuen. Lehenengoa izateko, sekulako balentria egin du andoaindarrak. Honatx, euskaratuta, Instagram sare sozialean jarri zuen mezua: "Nire lehen Maratoia: Irten, presiorik gabe, azkar, ausart, agian gehiegi, lasterketako lagunak top, irribarre egin animo bakoitzarekin, jendea ikusi, gozatu, jende asko, aurrera goaz, lasterketa erdia, oso azkar pasa dugu batez bestekoa, dagoena da, eskuz esku, ahal dudana, giharrak jota, horrela jarraitzen badut ez dut amaiuko, erritmoa jaitsi, sufritu, kilometro asko bakarrik korrika, muskuluen beldur aldapa bakoitzean, amaitu egin behar da, asko sufritu eta gelditu, luzatu, ibili eta berriro korrika egin, tira, animo gehiago, eskura duzu, ez dago minik, helmugarantz doan zuzenbidea, topera gozatu, ukabila estutu, ospatu eta hunkitu, familia besarkatu eta agurtu, beti hor daudelako. Mila esker! Eskerrik asko!"



ANDOAINGO

Garaipena Sevillan, junior mailan

TXIRRINDULARITZA Izaro Etxarrik irabazi du Sevillan ospatutako pistako Espainiako kopako junior milako lehen proba. Andoaingo Txirrindulari Eskolako txirrindulariak, beraz, junior mailan ere maila bikaina erakusten ari da. Horrela jarraituz gero, urte osoan albiste pozgarriak iritsiko zaizkigu Irati Aranguren, Izaro Etxarri eta gainerako taldekideen eskutik. Zorionak Izaro!



Urnieta KE, erasoan. UKE

ESKUBALOIA Lanbroa liderraren kantuan ariko da Leizaran

Euskadiko Senior Emakumezkoen txapelketa 1. maila zailean ari da Andoaingo taldea, eta aurrekoan Sidenor Basauri taldearen aurka garaile irten zen (29-24). Garaipen honekin sailkapenaren 4. postura igo dira. Asteburu honetan Bera Beraren kantuan ariko da. Lider sendoak dira donostiarrak, zazpitik zazpi garaipen lortu baitituzte. Asteburuko partida larunbatean izango da, Bidebieten arratsaldeko 16:10etan hasita.

Gipuzkoako 1.Lurraldeko senior emakumezkoa ligan, hirugarren postuan da Urnieta Quel Abogadoren senior eskubaloit-taldea Legazpiko La Salle garaitu ostean (19-30). Intentsitate handiko norgehiagoka izan zela adierazi du klubak, izan ere, kontzentrazio-maila handiarekin aritu ziren jokoa.

1.Lurraldeko senior gizonezkoa ligan, berriz, ez zuen horren asteburu oparoa eduki, ordea, Urnieta Artola harategia taldeak, 25-29 galdu baitzuen Decotextil Euskadi Donibane taldearen kontra. Klubak adierazi duenez, "kaskar samar" joan zen lehen zatia. Hala, atsedendialdiaren ostean jarritako intentsitate-maila altua ez zen nahikoa izan garaipena eskuratzeko. Nekeak gain hartuta amaitu zuten norgehiagoka (25-29).

Leizaran Ernio inmobiliaria taldeak, aldiz, garaipen argia eskuratu zuen Ordiziaren aurka (27-17). Garaipen horri esker Andoaingo taldea sailkapenaren bigarren postura iritsi da.

Asteburu honetan mutilen bi taldeak etxetik kanpo ariko dira. Urnietarrak, Hondarribian. Eta, andoaindarrak, Pasai Donibanen.



Urnietako senior mailako taldea, 2023ko udaberriaren. UKE

Urnietak garaipen baliotsua lortu zuen etxeko partidari

FUTBOLA Puntuak pilatzeko premian zen De Torresen taldea. Aurreko asteburuan Hondarribia garaitu zuen

Erredakzioa URNIETA

Gizonezkoen Gorengo mailan, 11. jardunaldiak poz txikia ekarri dio Pablo de Torres taldeari. Hiru puntu baliotsu lortu ditu, sailkapenean atzealdean geratzea saihesteko. Ligan aurrekaldeko postuetara gerturatzeko borrokan ari da Lengokoak, Baskonia eta Santo Tomas taldeekin batera. Axular da, une honetan, azken postuan dagoena 5 puntutekin. Urnietarrek 11 puntu dituzte, sailkapenean laugarren postuan doan Hondarribia garaitu ostean. Usurbilen dute hurrengo hitzordua, aurkari zuzenaren aurka.

Tentsioa Urnietako harmailetan

Etxeko zaletuen artean bengalak erabili zituztenen aurka jo du klubak, komunikatu ofizialean: "Urnietako Kirol Elkarteko futbol sailak guztiz gaitzesten du azaroaren 25ean, larunbatean, Hondarribia F.E. aurkako partidari gertatutakoa. Bengalen ekintzan parte hartu zuten pertsonak ez dituzte ulertzen gure klubaren balioak, partidara bertaratu zen publikoaren gehiengo zabalak ez bezala". Udalak ere deitoratu egin du gertaera, klubak egindako antzeko adierazpenen bitartez.



AJURRI

Junior mailako biak, lidergotzan

SASKIBALOIA Junior mailako gizonezkoen partaidetzako ligan Andoaingo Ganbara eta Representaciones Justino taldeak lidergotzan dira, hurrenez hurren, 1. eta 2. multzoan. Zazpigarren jardunaldira iritsita, Representaciones Justinok zazpitik zazpi garaipen lortu ditu. Azkena, Hernanin (66-69). Ganbarak, bestalde, Astigarraga garaitu zuen (60-41).



Joxe Mari Agirre eta Belen Gonzalez, Amaia gurasoak, Zanpatuz elkarteko Koldo Tapiarekin eta Jokin Lizeagarekin. Ekitaldiko unerik hunkigarriena izan zen. Aiurri.eus webgunean ikusgai dago. AIURRI

400 lagun pasa Zanpatuzek antolatutako emanaldietan

Aretoa birritan lepo bete zen azaroaren 23an. Eguerdian, ikasleekin. Eta, iluntzean, helduekin, 'Abriendo Camino' eta Amaia Agirreren Joxe Mari aitak osatutako lanak ikusteko. Azaroaren 24an ehun lagun elkartu ziren 'Amaiur' pelikula ikusteko

Andoni Urbistondo URNIETA

Amaia Agirre Gonzalez mendizale urnietarraren oroimenez antolatu diren zine emanaldiak arrakastatsuak izan dira, eta Amaia sendiak merezitako omenaldi beroa jaso zuen Saroben, pasa den astean. 400 lagun pasa bertaratu ziren aretora asteazken eta osteguneko saioetan. Herriko ikastoletako DBHko 160 ikasle asteazken eguerdian; 154 lagun asteazken gauean, eta ia 100, 93, Ekaitz Maiz etxauriarak eta Joseba Iztueta gabiria-

rrak ostegunean eman zuten 'Amaiur' pelikula ikusteko.

Uxue Loizu eta Amaia Seguro-la nafarrek 'Abriendo Camino' dokumentala erakutsi zuten asteazken eguerdian. FEDME Espainiako Mendi federazioko gazte taldeko kideak dira Uxue eta Amaia, eta Jordania eta Saudi Arabiako basamortuetako haitzetan irekitako bide berri eta zailak izan zituzten hipside. Emakumeek halako jardunak burutzea sozialki daukan garrantzia eta oihartzunaz ere mintza-

tu ziren. Eguerdiko dokumentala bukatuta halako ikastaro azkar bat egin zuten ikasleekin, haitzetan gora egiteko erabiltzen duten materiala ardatz.

Iluntzeko ekitaldian ere lepo bete zen gunea: 153 lagun. Oso momentu hunkigarriak bizi izan ziren. Batez ere Joxe Mari Agirre Amaia zenaren aitak bere alabaren izaera mendizalea erakutsi nahi izan zuelako, oraino inork ikusi gabeko bideoan. Joxe Marik zortzi minutuko bilduma ederra erakutsi zuen, Amaia-



Haitzetan gora, eskalada egiteko erabiltzen duten materiala azaltzeko tartetxo hartu zuten Uxue Loizu eta Amaia Seguro-la nafarrek, ikasleen aurrean. AIURRI

alpinismo jardunaz, eta mendizale gazteak munduko hainbat mendi gunetan pilatutako curriculum distiratsua nabarmendu nahi izan zuen.

Lore-sorta Amaia gurasoei, Tapia eta Lizeagaren eskutik

Amaia bideoa bukatuta, arratsuko unerik hunkigarriena iritsi zen, Zanpatuz mendi taldeko kide bik, Koldo Tapiak eta Jokin Lizeagak lore sorta bat eman baitzieten Amaia Agirreren gurasoei: Joxemari Agirre eta Belen Gonzalez-i. Tapiak hitz goxo batzuk esan zizkion bikoteari, lore sortak euren samina ez zuela itzaliko onartuz, baina Sarobera bertaraturako berotasunak samin hori samurtzen lagunduko zuelako itzaropentsu. Txalo zaparrada zintzoa eskaini zion jendeak bikoteari, eta Belen Gonzalez Amaia amak mikrofonoa hartu eta 'eskerrikasko' hitza esateko adorea izan zuen bere eserlekura bueltatu aurretik.

Uxue Loizu eta Amaia Seguro-la nafarrek 'Abriendo Camino' dokumentala azaldu zuten ondoren. Dokumentala bukatuta hainbat ikusleren jakin-mina ase zuten bi nafarrek, eta izan zuten harrera ona eskertzeko 2024an Urnietara gustura bueltatuko zirela esan zuten, aurtengo udan Groenlandian egin dituzten igoerak ezagutarazteko asmoz. Asteazkeneko ekitaldia Joxe Mari Agirre eta Belen Gonzalez-i azken txalo zaparrada eskainiz bukatu zen.

'Amaiur' gailurreko lehen igoera

Ostegunean Ekaitz Maiz etxauriarra eta Joseba Iztueta gabi-

riarraren txanda izan zen. Bi mendizaleak Indiako Himalaian izan ziren udan, Ladakh eskualdean hain zuzen ere. Hainbat bide ireki zituzten bailara hartako haitzetan, baina euren kontakizunak bikotearen arreta erakarri zuen erpin zorrotz batek izan zuen hipside. 5.790 metroko erpina, izenik gabekoa, eta bertakoek esan zientenez inork igo gabekoa, artean.

Bailaratik ikusten zena, eta bertan topatu zutena zeharo ezberdina izan zela aipatu zuen bikoteak, eta igoeran gorriak ikusi zituztela, espero ez zituzten zailtasunak topatuta. Bereziki interesgarria izan zen jaisterakoan izan zituzten arazoaren kontakizuna, gauez aritu behar izan baitzuten, eta soka bakar batekin, glaziarrera iritsiko ziren ziurtasunik gabe.

Bailarako lasaitasunean, erpinari izen bat jartzeko izan zituzten solasaldietan, gailurra 'Amaiur' izenarekin bataiatzea erabaki zuten bi mendizaleek, izen horrek nafar eta euskaldunentzat daukan esanahi handiengatik. Bezperako dokumentalean bezala, bertaraturakoek hainbat galdera egin zizkieten Ekaitzi eta Josebari, eta txalo zaparrada soinuetsua jasota agurtu ziren.

Amaia Agirre Gonzalezoren oroimenezko zine emanaldiko lehen ekitaldiak izan duen arrakasta gogoan, Zanpatuz mendi taldeak ekimenari segida emateko borondatea dauka, eta gauzak normal, 2024ko udazkenean Euskal Herriko alpinisten dokumental pare bat ikusgai izanen dira bueltan Sarobe aretoan.

BASBESTUTAKO EDUKIA

Euskara zerbitzuak / BETERRI-BURUNTZA

Kalean da jada Euskarazko Produktuen Katalogo berria, 2023-24 ikasturteari dagokiona, 8.000 sorkuntza lanen erreferentzien bildumaren aukeraketa batekin. Ohi bezala 0-16 urte artekoentzako jostailuak eta jokoak, musika, DVD filmak, APP-ak, aldizkariak, liburuak, gurasoentzako materiala eta komikiak, denetarik aurkituko duzue, Hego Euskal Herriko ehunetik gora udal eta mankomunitateak, tartean Buruntzaldeako udaletako euskara zerbitzuak lankidetzan jartzen dituen egitasmo honen paperezko edizioan. 64.000 ale banatuko dira aurten Hego Euskal Herri osoan; besteak beste Beterrri-Buruntza eskualdean (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil).

Urtean behin kaleratzen duten paperezko euskarri honez gain, gogoan izan, noiznahi kontsulta dezakezue eskaintza osoa katalogoa.eus atarian eta berrikuntza hauen jarraipena ere egin dezakezue, aipatu webgunean buletin elektronikora doan harpidetzea erabakitzen baduzue. Ikusi soilik ez, produktuok erosteko zubilana egiten dute webgune horren eta argitaletxeen artean. Paperezko euskarrian bezala, edizio elektronikoa ere 0-12 eta 12-16 urte artekoen zuzenduriko eskaintza berezituak dute. Aurtengoan, “biek ere itxura berriak estreinatu dituzte”, azaldu dute sustatzaileek.

Atal bakoitzak bere direktorioa du

Batean zein bestean, “atal bakoitzak bere direktorioa du eta, hartara, tipologia bakoitzeko produktuen bilaketa nabarmen

Hogeita bost urte, euskarazko aisialdian eragiten

Mende laurdena euskarazko sorkuntzaren erakusleio lana egiten, aisialdi tartea euskalduntzen. Konturatzeko, hogeitabosgarrena labetik atera berri dute, “zitz eta zazit!” aldarripean



Euskarazko Produktuen Katalogoaren 64.000 ale banatuko dira aurten Hego Euskal Herri osoan. ARGAZKIA: DURANGOKO AZOKA

erraztu eta hobetzen da produktuen titularen, argitaletxearen, autorearen, adin-tartearen edota prezioaren arabera bistara daitezkeelako. Azkenean, era-

biltzaileak produkturen bat begiz joz gero, argitaletxearen denda birtualera sartzeko manera izango du ‘non eskuratu’ botoian klikatuta”.

Nabarmen hazi da bisita kopurua

Maiz eguneratzen dute euskarazko produktuon ataria, “argitaratzen diren produktu berriak

sartuz, deskatalogatu direnak kenduz eta, finean, katalogoa.eus bizi-bizirik dago”. Nabarmentzekoa da, iaiztik hona webguneak izan duen bisita kopuruaren hazkuntza. Iaz 334 erabiltzaile sartu ziren bertan, 5.372 ikustaldi zenbatu zituzte, gehienak, ia mila, liburuen atalean. Aurten, izugarri hazi da bisitaldi kopurua. Sustatzaileek helarazitako datuen arabera, 3.146 erabiltzaile eta 40.793 ikustaldi izan ditu katalogoa.eus atariak. Kasu honetan, berdinketa eman da bisitatuenak diren bi atalen artean; liburuenen, 6.801 bisita zenbatu dituzte, 6.665 jostailu eta jokoaren atalean.

Aipatzekoa baita, haur eta gazteei zuzenduriko eskaintzetan orohar izan den ikustaldi eta erabiltzaile kopuruaren hazkuntza. Gaztetxoaren artean, iaz 203 erabiltzaile eta 395 ikustaldi erregistratu zituzten. Amaitzeko dagoen urte honetan, 2.275 erabiltzaile eta 4.209 ikustaldi. Gazteen kasuan, 918 erabiltzaile eta 1.842 ikustaldi zenbatu dituzte.

Lerrootan adierazi bezala, sarean eskaintza osoa kontsultatu ahal duzue, haren lagin bat 25 urte bete dituen paperezko edizioan. Horretarako, noski, ezinbestekoa da alde aurretik aukeraketa lan bat egitea, nahi bai baina ezin bilduma osoan eskuorrian sartu. Zereginotan aritzen dihardu Andoni Imazek. “Badok atarian argitaratzen diren diskoak sartzen saiatzen naiz, mota askotakoak”, adierazi digu. Ez da zeregin erraza izaten. “Zailagoa izaten da niretzat haurrentzako musikara iristea zuzenean, horiek gertuen ditudan zirkuitietatik kanpo egoten direlako, nolabait esateko. Orain lana pilatzen da arlo guztietan, argitalpen kopurua

Auzolanari segida emateko deia

Halere, mende laurdena igarota, beste hainbeste urteko ibilbidea izateko motibaziorik ez dela falta dio Osiok. Katalogoa, bere esanetan, “osasuntsu dago eta oraindik ere beharrezkoa izaten segitzen du. Presentzia fisikoa garrantzitsua da ikusi eta baita erreferentzia bat izateko ere”. Horren garrantzia are gehiago nabarmenduko lukeen

proposamen bat ere egin digu. “Ongi legoke norbaitek orain arte kaleraturiko katalogo guztiak hartu eta horien jarraipena egitea. Hor ikusiko genuke urte hauetan zer nolako garapena izan duen” bai paperezko euskarriak berak baita argitalpen honetan agertu diren sorkuntza lanek, haien egileek edota argitaletxeek ere.

Zer nolako lankidetzak izan den ere agerian utziko luke behaketa lan honek Asiainen esanetan. “Hasieran askoz gehiago kostatzen zen, baina poliki-poliki garatu izan da eta eskertzekoa eta ezinbestekoa izan da, behar bezalako lana egiteko”. Berarentzat urteotako esperientzia opari gisa definitzen du. “Haur eta gazteen literatura

mundu ikaragarria da. Gela batean sartu, bertan hamaika eta daudela ikusi eta ate bakoitzak beste toki batera eramaten zaitu, oso aberatsa da”, eta aberasgarritzat jo du baita ere alor honetan dihardutenekin harremandu ahal izatea.

Illo horretan, mende laurden honen zutabe nagusietako bat izan den auzolanari segida

emateko deia egin du lerroon bidez. “Euskal Herriaren eta haur eta gazte literaturaren indargune handienetako bat da elkarlana. Segi dezagun lan hori zaintzen eta zuzentzen”. Katalogoak ere orain arteko nortasunari eustea nahiko luke. “Erreferentziak erakusleioa izan eta eskuragarri izatea” nahi luke beste hogeita bost urtez.



Paperezko euskarrian bezala, edizio elektronikoa ere 0-12 eta 12-16 urte arteko zuzenduriko eskaintza berezitua dute.

asko hazten delako Durangoko Azokarako”, gaineratu du Imazek. Halere, azoka, informazio iturri ezin emankorragoa dela dio. “Edozein datu biltzeko, azoka bera ere oso toki aproposa izaten da, urteko berritasunak

modu antolatu eta sistematizatu batean lortzeko aukera apurretako bat, argialetxeen jardunetik kanpo ere iristen den argazki osatu antzeko bat”, azaldu digu. Horrekin batera, euskal musikaren atari den badok.eus

webguneak ere “baditu argazkia etengabe osatzen aritzeko sareak”.

DISKOEI DAGOKIONEZ, "BADOK ATARIAN ARGITARATZEN DIRENAK SARTZEN SAIATZEN GARA"

LITERATURA LANEN AUKERAKETAN, "KALITATEA DA LEHENESTEN DEN IRIZPIDEA"

"EDIZIO ELEKTRONIKOAK AUKERA AUNITZ EMATEN DITU BILAKETAK EGITEKO"

Kalitatea lehenesten

Liburuen atalean, bestalde, hautaketa lanetan dihardu Migelanjel Asiain “Osio”-k. Lehen

urteetan argitaratzen zen edukian “bazen nolabaiteko desoreka” eta zeregin hau “pertsona neutroago” batek egitea egokiagoztat jo zutela azaldu digu. Zeregin honetan dabilenetik, urtean zehar plazaratzen diren sorkuntza lanen jarraipena egiten du, gero hautaketa bideratu ahal izateko. Ardura hau egoki betetzeko, irakurle amorratua izatea ezinbestekoa ote den galdetuta, ezetz esan digu; derrigorrezkoa ez, baina “lagungarria bai” izan badela. Argi dio, plazaraturiko literatura lanen “kalitatea” da zeregin horretan lehenesten duen irizpidea. Horren ostean, sorkuntza egitasmo hauek “Euskal Herrian argitaratuak izatea. Gero, argialetxeen arteko oreka bermatzen saiatzen naiz”. Horrez gain, kontuan izan; 0-12 eta 12-16 urte artekoentzako eskaintza bereizten du Katalogoak. Horregatik ere, “ikus behar da urte bakoitzeko ekoizpen hori nola banatu den adin tarte ezberdinen arabera”.

Erabaki beharra

Hautaketa lan batek ezinbestean dakar, noski, nahi bai baina paperezko euskarrian dena sartu ezina. “Kasu gutxitan gertatu zait liburu bat edo beste kanpoan utzi beharra. Esaterako, hoge argitalpen izan eta hamabi hautatu beharra derrigorrez. Amorrua ematen du zortzi lan alboratu beharra liburu onak direla eta Katalogoan egotea merezia dutela uste izan arren. Baina lan honek bere baitan darama hori”, azaldu digu Osio.

Hutsunea gazteei zuzenduriko eskaintzan

25 urte bete ditu asteotan eskuratzeko aukera izango duzen Katalogoak. Mende laurdena igarota, “bere funtzioa oso ongi betetzen du, zabalpen handia du” nabarmendu du Osio eta katalogoia.eus atarian eskaintza osoa aurkitu ahalko dugun arren, gaineratu digunez, “agian momentuz online bidez ailegatzeko ez den tokietara iristen da paperezko edizioa”. Horregatik dio, bata zein bestea “elkarren osagarriak dira”. Edizio elektronikoa hain zuzen, “oso baliagarria dela” dio. “Aukera aunitz ematen ditu; adinaren edo egilearen arabera bilaketak egiteko esaterako. Paperekoak bete ezin duen hutsunea osatzen du”.

Bi hamarkada pasatzeko hautaketa lanak ahalbidetu dio Migelanjel Asiain Osioi “ikuspegi orokor bat izateko”. Zer nolako bilakaera izan duen galdetuta, “Euskal Herriko sorkuntza batzuek beste ongi dago, baina ez gaude dena ongi dagoela esateko moduan”, aipatu digunez.

Ibilbide luzeko egileak nabarmendu ditu, haiek sortutako kalitatezko lanak, haienarekin batera belaunaldi berrien sortze lanen balioa, bai idazle zein ilustratzaileena.

Baina Osio kezka bat ere partekatu nahi izan du lerroon bidez. “Gazteen sailean, haurrenean baino sorkuntza lan gutxiago dago”. Hortxe, etorkizunerako erronkatak.



HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 30

ANDOAIN ETA URNIETA Greba
Greba Ferminista Orokorra antolatuta dute, Hego Euskal Herri osoan.
Egun osoan.

URNIETA Odol-ematea
Interesa dutenek ondorengo telefono zenbakira deitu beharko dute egunean bertan txanda hatzeko: 943 00 78 85.
Gaztelekua.

OSTIRALA 1

ANDOAIN Bertso afaria
Sebastian Lizaso, Nerea Elustondo.
20:30, Santa Krutz elkarte.

ANDOAIN Erakusketa
Secundino Etxeberriaren argazki-erakusketa.
Ohiko ordutegia, Bastero Kulturguneko erakusketa-aretoa.

ANDOAIN Bertso afaria
Euskaraz Barra-barra egitasmoak sustatuta, ihesgela.
Abenduak 1, 2 eta 3. Goikoplaza.

LARUNBATA 2

ANDOAIN Ospakizuna
Irunberri elkartearen urteurrena.
12:30 Bermuta.
13:30 Urteurreneko ekitaldia.
14:30 Urteurreneko bazkaria.
18:00 Arrixku bertso taldea.
19:30 Malkogariyak.
Irunberri.



URNIETA Kantazaun kantari kalez kale, euskararen egunean

Azaroko azken asteko emanaldia pittin bat atzeratu dute, Euskararen Nazioarteko Egunarekin bat egiteko. Igande honetan, beraz, Kantazaun taldea kalez kale ariko da.
Abenduak 3, igandea. 12:00. Abiapuntua San Juan plaza.

ANDOAIN Tailerra
Autodefentsa feminista tailerra.
Emagin taldeak dinamizatuta.
09:30-15:00, Allurralde kiroldegia.

IGANDEA 3

ANDOAIN Ospakizuna
Beatriz Egizabal aktorea eta Audience musika taldea, euskararen nazioarteko egunaren ospakizunean.
12:00, Bastero.

URNIETA Antzerkia
"Itzas behera". Existitzeko beharraz hitz egiten duen komedia.
19:00, Sarobe. Euskaraz.

ASTEAZKENA 6

DURANGO Durangoko Azoka
Ahotsenea, Landako gunea eta beste hainbat eremutara zabalduko da azoka, hainbat egunez.
Abenduak 6-10.

IGANDEA 10

URNIETA Kontzertua
Golden Apple Quarteten agurreko biraren aurre-estreinaldia. "Vamos que nos vamos" ikuskizuna Eduardo Errondosoro, Loyola Garmendia, Manu Romano eta Kike Ochoarekin.
12:00, Sarobe.

ZINEMA




ANDOAIN

BASTERO

Napoleon
Lar, 2. 19:30,
22:00.
Ig, 3. 19:30.
Astl, 4. 19:30,
22:00.

Wish: El poder de los deseos
Lar, 9. 17:00.
Ig, 10. 17:00.

El favor
Lar, 9. 19:30,
22:00.
Ig, 10. 19:30.
Astl, 11. 19:30,
22:00.



SINOPSISIA



Napoleon

Zuzendaria: Ridley Scott. **Aktoreak:** Joaquin Phoenix, Vanessa Kirby, Tahar Rahim, Ben Miles... **Herrialdea:** AEB (2023).
Hizkuntza: Gaztelania. **Generoa:** Historia. **Iraupena:** 158 min.

Joker eta gero, Napoleon

Begirada pertsonala buruzagi militar frantziarraren jatorriari eta enperadore izateko iagoera azkar eta gupidagabeari. Istorioa Napoleon Bonapartek bere emazte eta benetako

maitasun bakarrarekin, Josefinarekin, duen harremanean azpimarra jartzen da. Urteko filma izateko bidean da, Bastero Kulturgunean asteburuan eskainiko dena.

Datorren Aiurri astekaria abenduaren 14n banatuko da

Datorren astean, jai-egun ugari dira, tartean, asteazkenean eta ostiralean. Aiurriko 2023ko egutegian azaltzen den moduan, datorren astean ez da papereko edizioa argitaratuko. Hurrengo Aiurri astekaria, beraz, abenduaren 14an banatuko da. Bien bitartean, Aiurri.eus bidez, egunerokoaren jarraipena egingo du erredakzio-taldeak.

www.aiurri.eus



Egunerokoaren jarraipena

Agerraldiak, albisteak, agenda
KLIK BAKARRERA



andoaINDARRA
euskaraz



Iluntzeko 19:00tan hasiko da emanaldia. PEZ LIMBO

“Itsas behera” antzerkia taularatuko dute Saroben

Pez Limbo antzerki-konpainiak berriki ondutako ikuskizuna da. Saroben izango da ikusgai, igandean

Erredakzioa URNIETA

“Itsas behera” antzezlanaren izenarekin hasiko da ikusgai Sarobe arte eszenikoaren gunean, igande honetan. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da hitzordua, euskaraz, eta bost euroko kostua izango du sarre-rak. Pez Limbo Gasteizko konpainiaren eskaintza berria da. Espe Lopezek zuzendutako obran, Javier Barandiaran eta Unai Lopez de Armentia izango dira taula gainerako protagonistak.

Beraiek eraikitako mundu batean bizi dira biak ala biak. Kontraesanen eta neke existentzialen arteko joan-etorrian izango dira pertsonaiak: “Ororen gainetik, existitzeko beharraz

hitz egiten digun komedia da, kosmosa eta lurraren artean, malenkonioa eta kabaretaren artean, materia ilunaren eta karaokearen artean toki bat aurkitzeko beharraz ari dena. Jainko eta munstroen artean. Azken aldiz errautsetatik birsortzen diren bi fenix-hegazti”.

Orain bi hamarkada pasata jaio zen konpainia Arabako hiriburuan. Harrezkero, ibilbide oparoa izan du, izan ere, guztira, hamabost ikuskizun ondu ditu, horietako asko, euskaraz: “Harri orri ar”, “Koxkak”, “Tri-paki salda”, “Lana”... Azkena, “Itsas Behera”, hain justu ere, Saroben ikusgai izango dena.



Audience musika taldea. AUDIENCE

Barra-barra ospakizuna, igande honetan, Bastero Kulturgunean

Ekitaldia Beatriz Egizabal umoregileak aurkeztuko du. Besteak beste, Audience taldeak parte hartuko du

Aiurri komunitatea

Andoaindarra Euskaraz

ANDOAIN

Markaren zabalkundea egiteko asmoz, e// asteburua izango dugu abenduaren 1etik 3ra.

Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, eguerdiko 12:00etan e// ekitaldia izango da Basteron. Ekitaldi horretan e// marka duten merkataria eta ostalariek nahiz herritar orok hartu ahal izango dute parte. Euskararen Nazioarteko Eguneraren harira, normaltasunez egunerokoan euskaraz bizitzeko hautua erdigunean jarri eta erabileran eragiteko aprobeztatzea da helburua. Izan ere, An-

doainen badira euskaraz lasai aritzeko espazioak. Ekitaldiaren beste helburuetako bat izango da e// markarekin bat egitea erabaki duten Andoaingo merkataria eta ostalarien apostua balioan jartzea. Ekitaldia Beatriz Egizabal lasartearrak aurkeztuko du eta Gernikako Audience musika taldeak girotuko du. Ibilbide oparoa osatu duen musika taldea da.

Gainera, 50 euroko 4 bono zozketatuko dira bertaratutakoaren artean, Andoainen e// marka duten denda eta tabernetan erabiltzeko. Ekitaldiaren amaieran, bertaratutakoentzako luntxa izango da.

ZORION-AGURRAK



Urte askuan!

- www.aiurri.eus Zorion agurrak atalean.
- **Whatsapp bidez:** 619 16 35 37
- diseinua@aiurri.eus
- **Arantzibia 4-5, behea** Andoain
- **Telefono zenbakia:** 943 300 732.

ANDOAIN

Zorionak, June

Junek abenduaren 6an 7 urte beteko ditu eta primeran ospatuko dugu. Zorionak polita eta segi beti bezain irrifartsu. Asko maite zaitugu!

ODOL-EMAILEAK

HITZORDUA

Azaroak 30, osteguna.

16:30-20:30. URNIETA, Plazido Muxika enparantza.

Odola eman nahi duten pertsonen ondorengo telefono zenbakira deitu hatzeko: 943 00 78 85.

Abenduak 15, ostirala.

19:00. ANDOAIN, pleno aretoa.

Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartearen Andoaingo Ordezkaritzak, 25, 50 eta 75 aldiz odola eman duten andoaindarrei diploma bana emango die. Aurten, zehazki, 9 lagun izango dira sarituak.

MERKATU TXIKIA

ALOKATU

Garaje marra alokatuta hartu nahiko nuke Andoaingo Ondarreta auzo inguruan. 660 122 632.

Bideo-sorta zabala AIURRI.eus webgunean



A30



A25



SANTA ZEZILIA EGUNeko OSPAKIZUNAK

AIURRI.EUS

ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA



"Zintzoena iruditu zait nitik kantatzea"

IGOR ELORTZA ARANOA ANONYME POPULAR

Ostiral honetan, abenduak 1, Bastero Kulturguneko auditorioan ariko da "Anonyme Popular" musika ikuskizuna aurkezten. 20:00tan hasiko da emanaldia

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Bertsotan oso gazte hasi zen, eta musikarekiko zaletasuna aspalditik dator. Artistikoki, Gu ta Gutarrak taldeetik Anonyme Popular egitasmo berrira egin du jauzi. Rafa Ruedarekin ondu du disko-liburua, Zart kolektiboaren eskutik argitaratu duena. Ostiral honetan zuzenekoaz gozatzeko aukera paregabea izango da. Hauxe TTAP aldizkarirako egindako elkarrizketetik ikuskizuna deskribatzeko aukeratutako pasarteak.

Musika elektronikoa nagusi da proposamen berrian, Rafa Ruedak ontzen lagundu dizun diskoan. Diskoa entzun dugunoi, kantuei erreparatu diogunoi... piztu zaigu jakinmina. Nolako izango da ikuskizuna? Edo kontzertua? Zein kontzeptu erabili beharko dugu? Igor Elortza Aranoa. Ikuskizuna, hobeto. Kantuak entzunda, jende guztiaren galdera bera da: "Hau zuzenean zelan egingo duzue?". Musika elektronikoa,



Igor Elortza Aranoa, "Anonyme Popular" disko-liburua eskuetan duela. TTAP

egun, oso estilo ezberdinetan garatu daiteke. Garai batean ia-ia dantzarako estilo modura bakarrik ulertzen zen, nahiz eta horrelako piezaren bat ere badagun tartean. Rafa Ruedak elementu elektronikoekin egin

du lan, eta instrumentazio organikoa erabili du ere. Ikuskizun deituko genioke, kontzertu formatua ez genukeelako bere horretan egin gura. Azken batean, mamia eta funtsa, bertso-sortak dira. Hitzari eman nahi diogu

zentralitatea, eta bertsoak musikatuak badira ere, taularatze-ko orduan bi musikari izango ditut lagun: Rafa Rueda bera eta Alvaro Olaetxea. Biak hainbat gailurekin, tartean elektronikoak eta bestelako instrumentuak ere bai. Eszenifikazioari begira Oier Zuñiga antzerkilari eta zuzendariarekin ari gara lanean, derrigortuta gaudelako gure formatua bilatzera. Ez dugu nahi musika kontzertu bat bezala ulertu dadin. Argiztapenekin giroak sortzea lehenetsi ditugu, argiak asko mugitzearen orde. Proiekzioak izango dira, tartean youtuben kantuekin zintzilika-tu ditugunak.

Kantuetan eta kantuen arteko pasarteetan hari modukoa egin nahi dugu antzerki munduko baliabidek erabiliz. Horrek ez du esan nahi antzerkia egingo dugunik, kantuetan zabaltzen ditugun hitz eta mezu horien mesedetan. Diskoa osatzen duten piezak izango dira oinarri, eta tokian tokiko eta garaian garai-ko bertso-jarriekin osatuko dugu erreperorioa. Eta baita bertsioren bat edo besterekin. Oso nitik egindako diskoa beste ni batzuek sortutako piezekin ordubeteko gu modukoa sortu nahiko genuke.

Zureak esanez niri buruz kantari zabiltzala sentitu dut nik, zure hitzak galderara egokituta. Konexioa bakantasan horretatik abiatu duzu.

I.E.A. Garai eta giro batean bizi gara zeinean indibiduo eta ko-

lektiboaren arteko haustura bat baino gehiago eratzte berri batzuren premia eman den. Ziurtasun batzuk urtu ziren eta beste batzuk sortu guran gabiltza. Ariketa zintzoena iruditzen zitzaidan nitik kantatzea. Ez, zehazki, nitaz. Nahiz eta kasu batzuetan oso gauza autobiografikoak esan. Nitik kantatzea ariketa zintzoa delako hainbat gairen aurrean kokatzeko, gure ingurune gertuan zein munduaren aurrean.

Hizpide duzun kantu horretan bada beste esaldi bat "ez dut nahi neure hutsik mozturrotu taldez, ez neure zomorroan bilatzea babes". Eta uste dut horrek esplikatzeko duela oso erraza dela askotan haiei buruz hitz egitea, guri buruz hitz egitea baino. Baina batzuetan guri buruz aritzea ere bada babes eremu bat, gu horretan norberaren burua diluitzeko eta ardurak taldean urtzeko.

Ez da hasieratik pentsatutako zerbait. Horrela atera zen, pilotzen joan zitzaizkidan bertso gehienak 2021eko udaberrian idatzitak dira. Nahiz eta denborarekin orraztu diren. Badira oraindik, pandemia garaian, idatzitakoak baina pandemia aurretik buruan nituen gogoe-tak ziren. Geroko sorta batzuk ere badira. Norberetik esanda-koak dira, eta behin argitaratu eta kantatzen hasten zarenean beste batzuei ere balioko diela-koan...



ekitaldia
abenduak 3
12:00 · Bastero

Euskararen
nazioarteko eguna





50 €ko 4 bono zozketatuko
dira Andoaingo e// duten 62
establezimenduetan
erabiltzeko!



Beatriz Egizabalek
aurkeztua eta
Audience musika
taldeak girotua





BEATRIZ EGIZABAL
AUDIENCE

Luntxa
izango
da

